

Ordizian, **2012ko urriaren 31an**, UDALBATZA elkartu da UDALETXEKO BILKURA-ARETOAN **APARTEKO BILERA** egiteko. Bertan izan dira honako hauek:

BERTARATUAK:

BATZORDEBURUA: Igor Eguren Izagirre jauna.

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Belén Maiza Urrestarazu andrea	BILDU taldea
Izaro Intsausti Zinkunegi andrea.	BILDU taldea
Juan Mari Gereñu Aldasoro jauna	BILDU taldea
Imanol Iturrioz Lauzirika jauna	BILDU taldea
Iban Asenjo Garde jauna	BILDU taldea
Judith Otegi Lopez de Murillas andrea	EAJ taldea
Jose Ignacio Iturrioz Gotor jauna	EAJ taldea
Arantzazu Garin Garmendia andrea	EAJ taldea
Bittor Bolinaga Alzelai jauna	EAJ taldea
Iñaki Dubreuil Churruca jauna	PSE/EE (PSOE) taldea

BERTARATU EZ ZIREN ZINEGOTZIAK :

Edurne Gutierrez Jauregi andrea	BILDU taldea
Jose Miguel Santamaría Ezeiza jauna	EAJ taldea

IDAZKARIA:

Martin Iparragirre Mujika jn.

KONTUHARTZAILEA:

Jose Luis Aramburu Otegi jn.

ITZULTZAILEA:

Izaskun Zubitur Iñarra

BERTARATZE ETA IRTEERAK

EGUNEKO GAIAK

EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:

2012ko Aurrekontuetako Kreditu transferentzien espedientea onartzea

.....16.orr.

GORABEHERAK

ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 19.00ak.

AMAIERA ORDUA: 19:20ak.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

1.- 2012ko Aurrekontuetako Kreditu transferentzien espedientea onartzea

Proposamena

2012ko Aurrekontuaren exekuzioa aztertu ondoren, espedientean azaltzen diren partidetan kreditua gehitzeko beharra dagoela ikusi da. Arrazoiak ere bertan azaltzen dira.

Aldi berean badaude beste partida batzuk non aurreikusitako kreditua handiegia den horietan izandako beharra kontuan izanda.

Espedientea bitan zatitu da. Batean, gastu arruntei dagokiena azaltzen da eta bestean inbertsioei dagokiena. Bata zein bestea antzekoak diren gastuen murrizketekin finantzatzen dira.

Akordio Proiektoa

2012ko Aurrekontuetako Kreditu transferentzien espedientea onartzea, 185.097 euroko kopuruarekin.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Kontuhartzaile jn

Aurkeztutako espedientea dela eta, adierazi du 622.425.00.01-Hizkuntza Eskolako partidari dagokionez, espedientea prestatu zenean aurrekontu zehatza ez bazen ezagutzen ere, orain informazio hori badagoela, eta azkenik 1.200,00 euroko gastua izango dela, eta zuzenketa hori egitea proposatu du.

Bolinaga jn.

Hartu du hitza, eta adierazi du nahiz eta inongo zalantzarik ez eduki teknikoki ondo egongo dela aurkeztu den espedientea, bere taldeak 2012ko aurrekontuaren aurka bozkatu zuenez, orain ere espediente honi ezin diola bere aldeko botua eman

Beraz kontuhartzaileak proposatutako zuzenketarekin honako proposamen hau jarri da bozketan:

Proposamena

2012ko Aurrekontuaren exekuzioa aztertu ondoren, espedientean azaltzen diren partidetan kreditua gehitzeko beharra dagoela ikusi da. Arrazoiak ere bertan azaltzen dira.

Aldi berean badaude beste partida batzuk non aurreikusitako kreditua handiegia den horietan izandako beharra kontuan izanda.

Espedientea bitan zatitu da. Batean, gastu arruntei dagokiena azaltzen da eta bestean inbertsioei dagokiena. Bata zein bestea antzekoak diren gastuen murrizketekin finantzatzen dira.

AKORDIO PROIEKTUA

2012ko Aurrekontuetako Kreditu transferentzien espedientea onartzea, 181.297,00 euroko kopuruarekin ondoren agertzen den taulan jasota geratzen den bezala.

FINANTZIAZIOA

KREDITU IGOERA

PARTIDA	IZENA	KOPURUA
ERAGIKETA ARRUNTAK		
224.111.00.01	Eraikinen aseguria	17.000,00
226.121.00.99	Eskriturak eta Erregistroko gastuak	9.500,00
226.222.11.99	Hainbat gastu	3.000,00
431.313.82.01	San Jose Zaharren Egoitzari ekarpena	50.000,00
201.435.00.01	Pabeiloien alokairua	5.050,00
211.469.10.01	Gaztediaren eraikinen mantenimendua	4.000,00
212.469.10.01	Gaztelekuko instalazioen mantenimendua	2.000,00
		90.550,00
KAPITAL ERAGIKETAK		
623.111.00.04	Tresneria	710,00
626.121.00.01	Informatika tresneria	1.400,00
624.222.11.01	Autoaren erosketa	7.862,00
622.313.82.01	Zaharren Egoitza egokitze lanak	30.000,00
623.313.99.02	Ongizateko harrera bulegoaren aldaketa	700,00
623.324.00.02	Gipuzkoa Share	2.400,00
623.324.00.04	Itzulpenerako tresneria	10.000,00
623.422.12.04	Urdaneta Ikastetxerako tresneria	115,00
622.425.00.01	Hizkuntza Eskolaren osaketa	1.200,00
622.433.00.01	Suhiltzaileen parke zahararen prestaketa	300,00
623.434.11.04	Parke eta Lorategietako tresneria	7.000,00
622.451.10.02	"Nadal"aren lokal bat prestatu	10.000,00
623.454.11.04	Tresneria	300,00
622.469.10.01	Gaztetxe berriaren prestaketa	1.600,00
622.469.10.02	Gaztelekuaren prestaketa	7.000,00
601.511.00.05	Irristeko arriskua ekiditzeko tratamendua	10.000,00
623.511.00.04	Tresneria	160,00
		90.747,00

IGOERAK GUZTIRA **181.297,00**

FINANTZIAZIOA
KREDITU MURRIZKETA

PARTIDA	IZENA	KOPURUA
ERAGIKETA ARRUNTAK		
332.010.00.01	Maileguen interesak	24.000,00
224.111.00.99	Hainbat aseguru	17.000,00
213.222.11.01	Udaltzaingoaren autoen mantenimendua	2.000,00
227.432.10.07	Hirigintzako ikerketa teknikoak	47.550,00
		90.550,00
KAPITAL ERAGIKETAK		
933.010.00.01	Maileguen amortizazioa	4.400,00
623.111.00.02	Itzulpenerako tresneria	10.000,00
623.222.12.02	Trafiko arautzeko instalakuntzak	10.000,00
622.435.00.01	Biltegirako pabeloien erosketa	60.000,00
601.511.00.03	Mugikortasunaren sustapena	6.347,00
		90.747,00
	MURRIZKETAK GUZTIRA	181.297,00

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 6 (BILDU 6)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 5 (EAJ 4, (PSE-EE (PSOE)1)

Alkate jaunak ondorioz, proposamena, onartutzat eman du.



Gai gehiago ez dagoenez, Alkateak Osoko Bilkura amaitutzat eman du, eta nik, idazkariak egiaztatzen dut.